



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

ERABAKIA, 2020KO UZTAILAREN 8KOA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREARENA, UNIBERTSITATEKO DOKTORE IKERTZAILE IRAUNKORRAREN PLAZA BETETZEKO LEHIAKETAN ONARTUTAKO ETA KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ARGITARATZEKO DENA.

Euskal Herriko Unibertsitateko Errektorearen 2020ko martxoaren 5eko Erabakiaren bidez deia egin zen unibertsitateko Doktore Ikertzaile Iraunkorraren plaza betetzeko (2020ko martxoaren 24ko EHAA), eta amaituta onartutako eta kanporatutako behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea (deialdiko 4.1. oinarrian zehaztutakoa), errektoreak ondokoa erabaki du:

Lehena.- Onestea lehiakide onartuen eta kanporatuen behin betiko zerrenda. Zerrenda Leioako Errektoregoko Lehiaketen Ataleko iragarki ohoan eta Interneteko helbide honetan ere ikusi daiteke: (<http://www.ehu.eus/>, Irakasleak-Deialdi bideratuak).

Bigarrena.- Argitara ematea erabaki honen eranskin moduan agertzen den lehiakide onartuen eta kanporatuen behin betiko zerrenda. Bertan jasota ageriko da lehiakidea kanporatua izateko arrazoia.

Hirugarrena.- Erabaki hau izapide egintza kualifikatua da eta bere aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke UPV/EHUko Errektoreari, erabakia argitaratu eta hilabeteko epearen barruan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 123. artikuluan eta hurrengoetan jasotako moduan; edo, bestela, zuzenean aurka egin daiteke Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan (errekurtso egilea aurretik funtzionarioa bada), edo Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan (errekurtso egilea aurretik funtzionarioa ez bada).

Hala adierazten da, guztiek jakin dezaten.

Leioa, 2020ko uztailaren 8a.

Eskumenak eskuordetuta (Ebazpena, 2017ko urtarrilaren 25ekoa, Errektorearena, 2017/02/03 EHAA).

INMACULADA

GUERRICAGOITIA MARINA

Firmado digitalmente por INMACULADA
GUERRICAGOITIA MARINA
Fecha: 2020.07.08 13:49:06 +02'00'

Izpta.: Inmaculada Guericagoitia Marina
Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ERANSKINA. LEHIAKETARA ATERATAKO PLAZAREN DATUAK:

Lanpostuaren zk.: 1. Kodea: IDPTCL1 - D00077-2. Kategoria: Doktore ikertzailea. Jakintza arloa: Zelulen Biologia. Saila: Zelulen Biologia eta Histologia. Ikastegia: Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea. Hizkuntza eskakizuna: Ez-elebiduna. Arduraldia: Osoa. Ikertzaile profila: "Hortzetako *stem cell*, *stem cell* neuroletan eta minbizi *stem cell*-etan esperimentazioa" eta "Terapia zelularra gaixotasun neurodegeneratiboetan".

ONARTUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA:

Izena eta deiturak: JOSE RAMON PINEDA MARTI
NAN: ***1945**

KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA: Bat ere ez